

**Makina bat kontu**  
120 urteko  
balea ehizatu  
dute

▣ *Ezpalak*  
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*  
▣ *Makina bat kontu*


Thesi  
Pirinioetako  
zeharkaldia II:  
Elizondo-Orbaitzeta

ARGIA

# erdiko kaiera

kultura eta aisia

## Literatura katalana Idazleen arrastoan



Katalanez idatzitako literaturak garapen handia bizi du azken hamarkadatan. 70eko hamarkadaren bigarren erditik gaur eguneraino generoak, idazleak, ereduak... Dena aldatu da. Bide horretan hainbat izen mugarri izan dira. Ondorengo orrialdeetan dituzu horietako batzuk.

# 30 urteko bidaia

**1970EKO HAMARKADAREN** bigarren erditik aurrera, Francoren heriotzaren ondorengo aldaketa sozial eta politikoek Katalunian aldaketa kultural eta literarioak aurrera eramateko aukerak ireki zituzten. Katalanaren onarpen eta hedapenak –besteak beste katalana heziketa-sisteman txertatuz– balizko publiko berria sortu zuen. Publiko berri hau batez ere gazteek osatzen zuten eta horri esker, baita katalanezko komunikabideen sortzeari ere, literatur merkatua eta industria biziki indartu ziren. Idazle askok katalanezko literatura ekoizteari ekin zioten, militantzia kontzientzia baten

Beheko argazkian Quim Monzó (Bartzelona 1952). Bera da seguruenik katalanez ari diren idazleen artean ezagunena.

eskutik, hizkuntzaren normalizazioa bultzatzeko helburuarekin. Bereziki azpimarragarria izan zen Ofèlia Dracs taldeak –Jaume Fuster, Maria Antònia Oliber, Jaume Cabré eta abarrek– 80ko hamarkadan egindako lana.


## Narratiba: anitzasunera bidaia

70eko hamarkadako azkeneko urteetan eta 80ko lehenbizikoetan, narratiba kataluniarrak bi ezaugarri nagusi zituen: batetik, generozko literaturaren sorrera, eta bestetik haur eta gazte literaturaren indartzea. Bi fenomeno hauek zuzenki lotuak daude arestian aipaturiko publiko berri horren sorrerarekin. Irakurle berriek generozko literatura eskatzen zuten, ordura arte apenas egiten zena, eta horrela sortu ziren Ofèlia Dracs taldearen inguruan literatura erotikoko liburuak, misteriozko eleberriak, eleberri poliziakoak edota zientzia fikziozkoak. Aldi berean, heziketa sisteman katalana sartzeak eskoletan irakurtzeko egokiak ziren haur eta gazte literaturaren merkatu berri bat sortu zuen. Aldaketa hauek guztiak literatura ludiko eta popularrago baten indartze legez ulertu ziren, batez ere 60ko hamarkadako transzendentalismoaren eta 70ekoaren joera abangoardista eta postabangoardisten aurrean. Edo nola ere, katalanaren normalizazio prozesuak aberastasun literarioa ekarri du, eta ondorioz, azkeneko hogeita bost urteotan ezaugarri askotariko literatura aurki daiteke Katalunian; joera esperimentalenetatik kontsumo literaturaraino.

70eko hamarkada hasieran, herentzia testualista jasotzen zuten saiakerak aurki ditzakegu. Saiakera abangoardista eta transgresore garbikoak. Julia Kristevaren *Semiotike* liburuaren eta Frantziako *Tel Quel* aldizkari ospetsuaren eraginpean idatzitako testuak ditugu honakook. Biel Mesquidaren *L'adolescent de sal* (1974) liburu edota *Tecstual* aldizkaria joera honen adibidetzat har genitzake.

Garai bertsoak dira Montserrat Roig-en *El temps de les cirenes* (1977) eta Terenci Moix-en *Onades sobre una roca deserta* (1969). Liburuok, ordea, belaunaldi kronika legez sailka daitezke, 60ko hamarkada bukaerako mugimendu kon-





trakulturalaren eragin garbia jasotakoak. Bien artean ere bada alderik. Moixen liburuan, diktaturaren presioaren aurrean, Europa ireki baten desira agertzen da; Roigena ordea, diktadorea hil ondorengoa da eta gehiago da itzulerara nobela bat, Katalunian bertan gizarte berri bat sortzeko itxaropenaz.

### Unibertso mitikoak, historia eta errealismoa

Beste ildo batetik, Gabriel García Márquezek *Cien años de soledad* eleberrian Macondo herrialde imaginarioarekin egiten duen legez, Baltasar Porcel, Maria Barbal, eta batez ere, Jesús Moncadak euren unibertso propioa eraiki dute euren lanetan. Moncada, 2005. urtean zendua, kataluniar literatura garaikideko puntako nobelagilea dugu *Camí de sirga* (1988), *La galeria de les estàtues* (1992) eta *Estrenida memòria* (1997) eleberriei esker, batik bat. Aurretik zenbait ipuin-liburu argitaratuak zituen eta bere unibertso literario osoa Mequinensa herriaren inguruan mugitzen da. Herri honetan jaio zen idazlea bera eta egun Ebro ibaiaren bazterrean dagoen Aragoiko mamu-herri bat da, Riba-roja urtegiaren zabaltzeak erdi estalirik utzi duena. Bere liburuetan, herri inguruko zurginen, mehatzarien eta *pagesen* mundua agertzen zaigu.

Nobela historikoa ere, erruz landu da azken urteetan. Frankismo ondorenak historiaren gaineko hausnarketa bultzatzeko parada ireki du, nahiz eta beste mota bateko nobela historikoak ere aurki ditzakegun. Esaterako, Jaume Cabré-ren *El llibre de Feixes* trilogiak eta *L'ombra de l'eunuc* (1996) eta *Les veus del Pamano* (2004) eleberriek Espainiako historia garaikidearen gaineko hausnarketa moralerako aukera eskaintzen dute. Carme Riera mallorkarraren *Dins el darrer bulau* (1994, Sari Nazionala) eta *Cap al cel obert* (2000) eleberriak berriz, Mallorkako juduen historian kokaturik daude, eta judutarren ondorengoek

Goiko argazkietan ezkerretik eskuinera: Jesús Moncada (Mequinensa 1941-Bartzelona 2005), Sergi Pàmies (Paris 1960) eta Jaume Subirana (Bartzelona 1963).

errealismo mota diferenteak. Alde batetik, Mallorkako idazle ugari 60ko hamarkadan turismoaren garapenak eragindako aldaketak adierazi dituzte euren lanetan. Gizarte tradizional eta itxi baten amaiera eta mundu ireki eta libreago baten etorrera irudikatuz; baina baita turismoak ekarritako espekulazio, negozio ustel eta lan-esplotazioa salatuz ere. Beste proposamen batzuk gizarte garaikideko eta egunerokotasuneko gatazkak eman dituzte aditzera. Horien guztien artean, Quim Monzóren obra nabarmentzen da, bereziki *El perque de tot plagat* (1993) ipuin-liburua. Monzó literatura katalaneko idazle entzutetsuenetakoa da gaur egun, entzutetsuena ez bada. Liburu honetan postmoderno deitu izan zaion gizarte aldakor, zatikatu eta arriskutsuaren *–risk society–* erretratu ironikoa, edo areago, parodiako-sarkastikoa azaltzen da. Horretarako, bikoite harremanetako gatazkak eta ezin ulertuak erabiltzen ditu, bizimodu paradoxiko, zalantzati, aspergarri eta monotonoa deskribatuz. Iraunkorrak eta zorionsuak izatera iritsi ezin duten harreman hauetan, ludikotasuna da nagusi eta pertsonaiek plazera bilatzen dute etengabe. Gizarte honetako identitate arazoak pertsonaiekin izenetan aurki ditzakegu era argienean, Zgdt, Bst edota Grcmpf gisakoak erabiltzen ditueanean, edo besterik gabe, protagonista-izenaz azaltzen ez denean. Idazle berrienen artean berriz, Monzóren bideari hobekien ekin diona Sergi Pàmies izan da. Bere lan esanguratsuenen artean *L'instint* (1994) eleberria eta *La gran novel·la sobre Barcelona* (1997) ipuin-liburua daude.

Abentura eta fantasiako eleberriek ere euren lekua egina dute. M. Ende eta J.R.R. Tolkien-en lanen ildoan koka dezakegu, horrela, Jaume Fusterren trilogia: *L'illa de les tres taronges* (1983), *L'amell de ferro* (1985) eta *El jardí de les palmeres* (1993). Berriki, Albert Sánchez Piñolek arrakasta nabarmena izan du *La pell freda* (2002) bere estreinako eleberriarekin.





Liburu hau trilogia baten lehenengo alea da eta hogeitaz hiru hizkuntza baino gehiagotara itzuli dute, nahiz eta ez duen kritika akademikoaren onespina lortu. 2005. urtean trilogiaren bigarren zatia argitara eman zuten, *Pandora al Congo* izenekoa. Bi liburuak Afrikan kokatuta daude, eta fantasiaz eta exotismoz betetako abentura istorioak kontatzen dituzte.

### Poesia: 70eko hamarkadako bide berriak

Espainia eta Euskal Herrian bezala, Katalunian ere poesia soziala eta konprometitua izan ziren nagusi gerra ondorenean. Horren aurrean, 70eko hamarkadan, poesia egiteko modu berriak agertu ziren. Batetik, errealismo berriak proposatzen dituzten poetak ditugu, poesia ingeles eta alemaniarraren eta Gabriel Ferrater-en obraren eraginpean. Joera hausnartzaile eta moraleko poesia, norbanakoaren esperientzia, identitatea, niaren bilaketa eta denboraren igarotzea bezalako gaiak jorratzen dituena. Teknikari dagokionez, oro har, bertso lerro luzeak eta luxu handirik gabeko hizkuntza natural eta lagunartekoa erabiltzen dute autoreok. Narcís Comadira, Marta Pessarrodona, Feliu Formosa, Salvador Oliva eta Francesc Parcerisas aipa daitezke ildo honen eredu gisa.

Horiez gain, tradizio konprometitu nagusiarekin erradikalki hausten zuen poesia egiten hasi ziren beste hainbat idazle. Pere Gimferrer da aipagarriena. Gerora gaztelaniaz ere bere bidea egin duen arren, katalanezko obra poetiko sendoa osatua du. Hizkuntza du elementu nagusi. Espiritu abangoardista nabariko poesia egiten du, surrealismoaren eraginpekoa, eta etengabe bilatzen du transgresioa nahiz esperientzia. Irudi onirikoak, irrealismoa eta *collage*ak sarritan errepikatzen diren ezaugarriak dira bere poemetan. Hala ere, azpimarratu beharra dago XX. mendearen lehenengo erdian arestian aipaturiko poesia soziala nagusi izanagatik, ez zela inolaz ere garaiko eredu bakarra. Abangoardien saiakeretatik edaten zuten poetak aurki daitezke garai horietan ere, nahiz eta literaturaren historia eta kritikak urtean ezkutu antzean mantendu dituen. Horregatik, 70eko hamarkadan sortutako poeta berri hauek poeta abangoardista haien bidetara ekiten diote nolabait, eta Kataluniako kasuan, Joan Brossa eta J.V

## Literatura katalana euskaraz

Deigarria da –are gehiago Galeusca gisako erakundeak egonda– aipatu ditugun autore guztien artean Quim Monzóren *El Perquè de tot plegat* liburu izatea euskaratua izan den bakarra. Luis Berrizbeitiak itzuli eta 1998. urtean argitaratu zuen Elkarrek *Gauza guztien zergatia* izenburupean. Egiazki, gure datuen arabera, ez dira hogeira iristen euskaratuak izan diren katalanezko liburuak. Hauetatik gehienak XX. mende hasieran jaiotako idazleentzat dira: Salvador Espriu, Mercè Rodoreda, Joan Salvat-Papasseit eta Manuel de Pedrolo, besteak beste. Oraindik bizi diren idazleen artean, Isabel-Clara Simó eta Josep Vallverdú-ren hiruna liburu euskaratu dira; biak ala biak asko publikatzen duten idazleak dira baina ez dira egungo literatura katalanaren kanonean kokatzen.

Egoera hau, euskal itzulpen gintza-ren politika nagusiaren eredugarri ere bada. Izan ere, gaur egun dugun liburu klasiko eta kanonizatuak itzultzeko joera gehiegizko honek bi ondorio

dakartza nagusiki: liburu garaikideen itzulpen eza –eta itzultzen direnean, gaztelanierazkoaren ondoren, eta beraz aski mugatuta–; eta literatura periferikoetako lanak euskaratzeko joera urria. Lehenengo ondorioari aurre egin nahian, aipatzekoa da Alberdania argitaletxeak Paul Austerren nobela berriak itzultzeko hartu duen erabakia. Gaztelaz itzuliak izan ez diren liburuak –edo itzulita ere eskuratzeko zailak direnak– euskaraz argitaratzeko aukera irekitzen du, gaztelanierazko itzulpenetik morrontza saihestuz. Hala ere, salbuespenak dira bide honi ekin dioten argitaletxeak; Alberdaniaren zenbait liburu, Igelako beste zenbait eta Susaren Erreferentzia saileko –1998. urtean argitaratu zuten azken alea– beste batzuk. Horregatik, egun Katalunia aldean idazten denari arreta eskaintzea bide egokia izan daiteke gaztelaniarekiko morrontza hori saihesteko, bertako obra interesgarri asko geratzen baitira euskal irakurlearen eskuetatik urrun.

Foix dira jarrera abangoardista horien adibide behinenak, Gimferreren aurrekari gertukoek beraz. Ildo berean koka daitezke gazterik zendu zen María Merce Marçal poeta bartzelonarra ere.

Poeta gazteenen artean heterogeneotasun handia dagoela seinala daiteke. Poesia errealistetatik (Jaume Subirana) hermetikotetaraino (Carles Torner, Albert Roig), simbolismoaren eragina jaso duten poetekin (Vicenc Llorca) edo transgresioa eta probokazioa bilatzen dutenekin (Ester Xargay) batera. Dena den, badirudi autore gazte gehienek ezaugarri bat behintzat partekatzen dutela: originaltasunaren inperatiboarekiko eszeptikotasuna.

Literatur sorkuntza klasikoaren berridazketa lez ulertzen dute, eta ondorioz, brikolaje literarioak, testuartekotasuna edo parafraasiak maiz topatzen dira euren poemetan. Autore bakoitzaren erreferentzien arabera, hasieran aipatutako heterogeneotasun hori erdiesten da. Poeta belanaldi berri honetako autorek entzutetsuenetako bat Enric Cassases bartzelonarra da. Poesia publikoari zabaltzeko borondate garbiarekin, poesia errezitaldi ugari antolatuta ohi ditu Kataluniako hiriburuan. ■

### Poeta katalan gazteenen artean heterogeneotasun handia dago.

### Poesia errealistatik, hermetikoraino